BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

# ALDIZKARI OFIZIALA

# BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA | XII. AGINTALDIA

**Serie B** **Información, control e impulso** | **Informazinoa, kontrola eta sustapena** **B Saila**

**XXV** **Proposición no de norma** | **Arauz besteko proposamena** **XXV**

Bilbo, 2025eko ekainaren 12a
Bilbao, 12 de junio de 2025

Número 41a | 41a alea

**ASUNTO:** Disputa legal entre los municipios de Sukarrieta y Busturia por el enclave de San Antonio.

**AUTOR:** González Diez-Andino, Raquel

**Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 10 de junio de 2025, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.
**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor
**Órgano Destino de Tramitación:** Pleno
**Procedimiento de Tramitación:** Normal
**Plazos:**
Presentación de enmiendas a la proposición no de Norma: 7 días. Finaliza el 23 de junio, a las 13:30 horas
**Otros acuerdos**
Ordenar la apertura del plazo de enmiendas
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
**Regulaciones:**
Reglamento: Artículo 175 y sgts. y artículo 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 10 de junio de 2025.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

**A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

Raquel GONZÁLEZ DÍEZ-ANDINO, Portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, al amparo del presente reglamento, formula la siguiente PROPOSICIÓN NO DE NORMA, para su debate en Pleno sobre la disputa legal entre los municipios de Sukarrieta y Busturia a cuenta del barrio de Abiña, llamado también enclave de San Antonio.

JUSTIFICACIÓN

En el pleno ordinario celebrado en las Juntas Generales el 14 de diciembre de 2017, se adoptó la decisión de “supresión del enclave de San Antonio” por parte de los apoderados de aquella legislatura y que este fuese a formar parte del término municipal de Busturia.

**GAIA:** Sukarrieta eta Busturia udalerrien arteko lege-auzia, San Antonio enklabea dala-ta

**EGILEA:** González Diez-Andino, Raquel

**Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea**

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2025eko ekainaren 10ean izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea
**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Organo hartzailea:** Osokoa
**Prozedurea:** Arrunta
**Epea:**
Arauz besteko proposamenari zuzenketa-eskeak aurkezteko: 7 egun. Amaierea: ekainaren 23an, 13:30etan
**Beste erabagi batzuk**
Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea edegiteko agintzea
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
**Araudi oinarria:**
Araudia: 175. artikulua eta hur. eta 92. artikulua

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2025eko ekainaren 10ean.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI**

Raquel GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO andreak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Bizkaiko Talde Popularreko taldeburuak, indarrean dagoan Araudian ezarritakoaren arabera, ARAUZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkezten dau Osoko Batzarrean eztabaidatu daiten, Sukarrieta eta Busturia udalerrien artean Abiña auzoa dala-ta (San Antonio enklabea be baderitxana) dagoan lege-auziari buruz.

ARRAZOIKETEA

2017ko abenduaren 14an Batzar Nagusietan egindako ohiko Osoko Batzarrean, agintaldi haretan egozan batzarkidek erabagi eben “San Antonioko enklabea kentzea”, Busturiako udal-mugartean sartzeko.

Años más tardes, el 17 de octubre de 2024 y el 31 de enero del presente año, ambas en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, se expusieron los dos puntos de vista sobre la pertenencia legal del conocido como “enclave de San Antonio”.

Una sentencia de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco fechada en el 31 de mayo de 2013, decide estimar el recurso contencioso-administrativo del Ayuntamiento de Busturia porque, según su versión, existiría un “enclave” dado que ese terreno estaría separado por “mar territorial” del Municipio de Sukarrieta e integrado “dentro” del de Busturia, lo que propicia la aplicación de la Norma Foral 8/1993, de 7 de julio, de términos municipales de Bizkaia, determinando así la integración en el Municipio de Busturia de ese enclave que hasta entonces pertenecía al de Sukarrieta.

Sin embargo, informes posteriores incluso llegan a declarar dicha sentencia de “Cumplimiento Imposible” por la distinta interpretación de ese “mar territorial”.

Dado que existen varios informes de distintos catedráticos en direcciones opuestas y se muestran dudas sobre que Norma Foral aplicar, especialmente después de los informes emitidos en ambas comisiones por ambas plataformas, y visto el enfrentamiento frontal entre municipios, así como el desasosiego social en ambos, formulamos la siguiente PROPOSICIÓN NO DE NORMA para su debate en pleno:

1. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a reconsiderar la decisión tomada en el pasado pleno del 14 de diciembre de 2017 y revisar la situación con los nuevos informes para llegar a una nueva conclusión, teniendo en cuenta los nuevos informes aportados durante estos últimos años.

2. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a mediar entre ambos municipios para que, tanto Sukarrieta como Busturia, acepten de buena fe la nueva resolución adoptada fruto del punto anterior a las disputas entre vecinos, buscando siempre la paz social y poniendo fin, de forma definitiva, a las disputas.

Bilbao, 2 de junio de 2025

**Raquel González Díez-Andino,**
Portavoz del Grupo Popular Vizcaíno

Urte batzuk beranduago, Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordean batzorderatze bi izan ziran, bata 2024ko urriaren 17an eta bestea aurtengo urtarrilaren 31n, eta horretariko bakotxean, “San Antonioko enklabearen” auziaz, legez zein udalerritakoa dan-eta, dagozan ikuspuntu biak azaldu ziran.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2013ko maiatzaren 31ko epai batek onartu egin eban Busturiako Udalak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Busturiako Udalak uste dau “enklabea” egon dagoala, lursail hori Sukarrietako udalerritik bananduta dagoalako, bitartean “jurisdikzino-itsasoa” legokelako; beraz, Busturiako udalerriaren “barruan” integrauta egongo litzateke. Horren ondorenez, Bizkaiko Udal Mugarteei buruzko uztailaren 7ko 8/1993 Foru Araua aplikau zan, eta ordura arte Sukarrietakoa zan enklabe hori Busturiako udalerrian sartzea erabagi zan.

Halanda be, geroagoko txostenek esan izan dabe epai hori “bete ezinekoa” be izan leitekela, “jurisdikzino-itsasoa” zer dan-eta dagozan interpretazino desbardinakaitik.

Kontuan izanik bateko eta besteko katedradunek kontrakoa dinoen txostenak egin dituela eta aplikau behar dan foru arauaz zalantzak dituela —batez be plataforma biek batzordeetan azaldutako txostenen ondoren—, eta ikusita udalerri biok mokoka dabilzala eta bateko zein besteko herritarrak artega dagozala, hori guztia aintzat hartuta, bada, ARAUZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkezten dugu, Osoko Batzarrean eztabaidatzeko:

1. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie barriro aztertu daiala 2017ko abenduaren 14ko Osoko Batzarrean hartutako erabagia eta egoerea barriro neurtu daiala agertu diran txosten barriak kontuan hartuta. Hori guztia egindakoan, ondorio barriak atara daizala, azken urteotan agertu diran txosten barriak kontuan hartuta.

2. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie udalerri bien arteko bitartekaritza egin daiala, bai Sukarrietak bai Busturiak fede onez onartu daien aurreko puntuaren ondorioz hartu daiten ebazpen barria, auzotarren arteko liskarrak eta ezbaiak behin betiko baretzearren, beti be bake sozialaren mesederako.

Bilbon, 2025eko ekainaren 2an

**Raquel González Díez-Andino,**
Bizkaiko Talde Popularreko taldeburua